

GARIZUMA

HAUSTERRE EGUNA (C)

HASIERAKO OHIKUNEAK ETA HITZAREN LITURGIA

Damu otoitzik ez da egingo; horren ordeaz errautsa ipiniko da.

Otoitza

Indar gaitzazu, Jauna, zeure laguntzaz
Garizumaren hasiera honetan,
bihotz-berritzeari ekin diezaiozun,
penitentziaren bidez etsai gaiztoari gogor egiteko.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: JI 2, 12-18

Urra itzazue bihotzak ez soinekoak.

Joel Profetaren liburutik

«Begira zer dioen Jaun guztiz ahaltuak:
Itzul zaitezte Niregana bihotz-bihotzez,
baraez, negarrez eta saminez.
Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak;
itzul zaitezte Jaunarengana;
zuen Jaungoikoarengana;
bihotz-bera eta errukitsua baita,
haserretzen zaila, erruki haundikoa,
eta bere zemaietaz damutzen dena.
Nork daki ez ote den itzuliko eta damutuko,
eta ez ote digun utziko oraindik
bedeinkapena eta eskaintza,
eta Jaunaren, gure Jainkoaren isur oparia?
Jo ezazue turuta Sionen, adierazi oihuka baraua,
dei egin batzarrera;
bildu herria, bedeinkatu batzarra, bildu zaharrak
eta ekarri gaztetxoak eta bularreko haurrak;
atera bedi senarra ezkongelatik,
emaztea ezkonohetik.
Sarrera eta aldare bitartean negar egin bezate
apaizek, Jaunaren zerbitzariak,
eta esan: “Barka, Jauna, barka zure herriari;
ez utzi lotsatan zure ondarea;
ez dezatela menperatu jentilek,
ez dezatela esan arrotzek:
Non dute, bada, beren Jaungoikoa?”

Sor bekio Jaunari bere lurraldearenganako errukia eta barka biezaio bere herriari».

ERANTZUN SALMOA: Sal 50, 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17

R/. Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun haundiaz,
suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz.
Garbi nazazu zeharo neure hobenetik,
ikus nazazu neure gaiztakeriatik. R/.

Neure bihurrikeria ezagutzen baitut,
neure hobena beti begien aurrean baitut.
Zuri egin dizut bekatu, Zuri bakarrik,
zure begietan oker dena egin dut nik. R/.

Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan,
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.
Ez nazazu urrun zeure aurretik,
zure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Zeure salbamenaren poza bihuriezadazu,
zeure arnasa zabalez sendo nazazu.
Irekiko dizkidazu ezpainok, Jauna,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ko 5, 20-6, 2

*Adiskidetu zaitetze Jaungoikoarekin:
oraintxe da garai egokia.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Gu Kristoren ordezkoko bezala ari gara, beraz; Jaungoikoak gure ahoz hotsegingo balizue bezala. Kristoren izenean esaten dizuegu: adiskidetu zaitetze Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen Hura, Jaungoikoak guregatik bekatu bihurtu zuen, guk Harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamena irits dezagun.

Jaungoikoaren zerbitzari garenez gero eskatzen dizuet, ez dezazuela alferrik har Haren grazia. Berak baitio: «Garai egokian entzuten dizut; eta salbamen egunean laguntzen». Begira, beraz: oraintxe da garai egokia, orain salbamen eguna.

EBANJELIOA: Mt 6, 1-6. 16-18

Ebanjelio aurreko txatala: Ik. Sal 94, 8a 7b

V/. Gaur, ez gogortu zuen bihotza,
baizik eta entzun Jaunaren mintzoa.

Ezkutuan ikusten duen zure

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Begira, gero, zuen egite onak gizakien aurrean egin, ikus zaitzaten! Bestela ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematerakoan, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak gorets ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, limosna ematerakoan, ez beza jakin zure ezkerak, eskuinak egiten duena; zure limosna hori ezkutuan geldidadin; eta ezkutuan ikusten duen zure Aitak emango dizu saria.

Otoitz egiterakoan, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta enparantza ertzetan zutik otoitz egin-zale agertzen baitira, gizakien ikusgarri. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egiterakoan, sar zaitez zeure gelan, itxi atea, eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ikusten duen zure Aitak emango dizu saria.

Barau duzunean, ez ipini aurpegi ilunik, itxurazaleek bezala; aurpegia zatartu egiten baitute horrelakoek, baraurik daudela ingurukoei adierazi nahiz. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau duzunean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu arpegia; ingurukoek ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ikusten duen zure Aitak emango dizu saria».

ERRAUTSA BEDEINKATZEA ETA IPINTZEA

Homilia egin ondoren, apaizak, zutik eta eskuak bildurik dituela, esaten du:

Senideok: Egin diezaiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarri hartuko dugun hauts hau bere grazia ugariez bedeinka dezan.

Bedeinkapen otoitza

Jainko Jauna,
umiltasunak bigundu egiten zaitu eta damuak samurtu;
entzun gure otoitzak, eta isur bihotz onez
zure bedeinkapenaren + grazia
hautsa hartzera doazen zure zerbitzarien gainera:
Garizumako egintzak zintzo betez,
gogo-bihotzak garbiturik, irits daitezen
zure Semearen Pazko misterioak ospatzera.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen

EUKARISTIAREN LITURGIA

Oparigaien gainekoa

Garizuma hastean, opari hau eskaintzen dizugu, Jauna,
eta otoitz egiten:
maitasunezko egintzek eta gure penitentziek
lagun diezagutela geure buruaren jabe izaten,
geure bekatuetatik garbituta
bihotzez ospa dezagun zure Semearen nekaldia.
Errege bizi baita.

Prefazioa: Garizumakoa.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dugun sakramentuak, Jauna,
zure gogoko egin ditzala gure barauak
eta guretzat osasungarri.
Jesu Kristo.

GARIZUMAKO I. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
Garizumako elizkizunek eta penitentziek
egiazko bihotz-berritzera eraman gaitzatela,
Kristoren misterioa hobeki ezagutu eta bizi dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Dt 26, 4-10

Herri aukeratuaren fede aitormena.

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitzegin zion herriari: «Apaizak, zure eskutik lehen fruituak hartu eta Jaunaren, zure Jainkoaren, aldare aurrean jarriko ditu.

Orduan, Jaunaren, zure Jainkoaren, aurrean honela esango duzu: «Nire aita, haruntz-honuntz zebilen aramear bat zen; Ejiptora jaitsirik, arrotz bizi izan zen han, lagun bakar batzuekin; baina gero herri haundi egin zen jendez eta indarrez.

Ejiptoarrek gaizki erabili gintuzten eta atsekabetu, eta uztarri latza ezarri ziguten. Orduan guk Jaunari, gure arbasoen Jainkoari, deiadar egin genion, eta Jaunak gure deiadarra entzun zuen. Gure atsekabe, neke eta estualdia ikusirik, esku azkarrez eta beso zabalez atera gintuen Ejiptotik, beldur-ikara, ezaugarri eta egintza harrigarrien artean. Orain gauden toki honetara ekarri gintuen eta lur hau eman zigun, asnea eta ezitia darion lurra. Horregatik ekarri ditut honera, Zuk, Jaun horrek, eman didazun lurraren lehen fruituak».

Jaunaren, zure Jainkoaren, aurrean utziko dituzu, eta Jauna, zure Jainkoa, ahuspez gurtuko duzu».

ERANTZUN SALMOA: Sal 90, 1-2. 10-11. 12-13. 14-15

R/. Zaude nirekin, Jauna, larrialdian.

Goi-goikoaren babespean zaudena,
gutziz Ahaltsuaren itzalpean bizi zarena,
esaiozu Jaunari: «Zu zaitut ihesleku eta gaztelu,
ene Jainko, Zugan nago sendo.» R/.

Ez zaizu gaitzik alderatuko,
ez izurrik zure etxolara hurbilduko.
Agindu baitie aingeruei zutaz,
zaindu zaitzatela bide guztietan. R/.

Eramango zaituzte eskuetan,
oina oztopa ez dakizun harrietan.
Suge ta sugedorri gainean duzu oina kokatuko,
lehoi eta herensugea azpian zapalduko. R/.

«Niri itsatsi zaidanez gero, onik aterako dut,
nire izena ezagutu duenez gero, babestuko dut.
Deituko nau eta Nik hari entzungo,
berekin izango nau larrialdirako,
askatuko dut eta ospetsu egingo.» R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 10, 8-13

Kristorengan sinesten duenaren fede aitormena.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Zeure ondoan duzu hitza: zeure ahoan eta zeure bihotzean». Hitz hori da, guk hotsegiten dugun sinesmenaren berria. Izan ere, zeure ahoz aitortzen baduzu, Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu, Jaungoikoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Bihotzez sinesteak zuzentasuna dakarkigu, eta ahoz aitortzeak, salbamena. Liburu Santuak honela dio: «Harengan sinesten duena, ez da lotsatan geldituko».

Ez baitago bereizkuntza egiterik, judutar izan nahiz greziar izan; bat-bera da guztien Jauna, Hari dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten dion guztiak iritsiko du salbamena».

EBANJELIOA: Lk 4, 1-13

Ebanjelio aurreko txatala: Mt 4, 4b

V/. Gizona ez da ogiz bakarrik bizi,
Jaungoikoaren ahotik ateratzen den
hitz guztitik baizik.

*Espirituak erabili zuen basamortuan,
eta deabruak tentaldian jarri zuen.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik

Aldi hartan, Espiritu Santuaz beterik itzuli zen Jesus Jordandik; Espirituak erabili zuen basamortuan berrogei egunez, eta deabruak tentaldian jarri zuen. Ez zuen ezer jan egun haietan; eta azkenean gosetu egin zen. Deabruak esan zion: «Jaungoikoaren Seme baldin bazara, esaiozu harri honi, ogi bihur dadila». Eta Jesusek erantzun: «Idatzirik dago:

"Gizona ez da ogiz bakarrik bizi"».

Gero toki goi batera eramanez, deabruak lurereko erreinu guztiak erakutsi zizkion une batean, eta esan zion: «Horien guztien agintea eta aintza emango dizut: niri eman baitzikidate eta nik nahi dudanari ematen diot; beraz, gurtzen banauzu, zurea izango da dena». Jesusek erantzun: «Idatzirik dago:

"Jauna, zeure Jaungoikoa, gurtuko duzu,
eta Bera bakarrik serbitzatuko"».

Orduan Jerusalemaren eraman eta jauretxeko teilatu ertzean ipini zuen, eta esan zion: «Jaungoikoaren Seme baldin bazara, bota ezazu zeure burua hemendik behera; idatzirik dago eta:

"Bere aingeruei die aginduko,
zu zaindu eta onik ateratzeko";
eta "eramango zaituzte eskuetan,

oina oztopa ez dakizun harrietan"».
Honela erantzun zion Jesusek: «Agindua dago:
"Ez tenta Jauna, zeure Jaungoikoa"».
Eta tentaldiak bukatuak, aldegin zuen deabruak beste bat arte.

Oparigaien gainekoa

Opari honekin hasten dugu, Jauna,
Pazko misterioaren prestakizuna;
egizu, gure bihotza izan dadila
eskaintza honen betekoa.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dugun ogi honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
erakusiezaguzu
egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo.

GARIZUMAKO II. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko Aita guztiz santua,
zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure sinesmen begiak argiturik,
pozez ikus dezagun zure aintza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 15, 5-12. 17-18

*Jaungoikoak elkargo egiten du
Abraham leialarekin.*

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaunak kanpora aterarazi zuen Abran, eta honela esan zion: «Begira zerura, eta konta itzazu izarrak, ahal baduzu». Eta gainera esan zion: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Abranek sinetsi zion Jaunari; eta Jaunak aintzat hartu zion zuzentasunerako. Eta esan zion: «Ni naiz Jauna, Kaldeako Ur herritik zu atera zaitudana, lurralde honen jabe egiteko». Eta Abranek: «Jainko Jauna, nondik ezagutuko dut, jabe izango naizela?»

Jainkoak erantzun: «Ekar iezazkidazu, hiru urteko behi bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, usapal bat eta usakume bat». Ekarki zituen Abranek guzti hauek eta erdibitu egin zituen, eta erdi bakoitza bata-besteari buruz ipini; baina hegaztiak ez zituen erdibitu. Hegazti harrapalariak sarraskira zetozen, eta Abranek uxatu egiten zituen.

Eguzkia sartzean, Abran lo haundiak hartu zuen, eta ikara haundi bat erori zitzaion gainera.

Eguzkia sartu eta ilun-beltz egin zenean, labe bat agertu zen ketan eta zuzi bat sutan, zati haien artetik igarotzen. Egun hartan Jaunak elkargo egin zuen Abranekin, esanez: «Zure ondorengoei emango diet lurralde hau, Ejiptoko ibaitik Eufrates ibai haundiraino».

ERANTZUN SALMOA: Sal 26, 1. 7-8ab. 8c-9. 13-14

R/. Jauna dut argi eta salbamen.

Jauna dut argi eta salbamen, nork ni beldurtu?
Jauna biziaren babes, nork ni izutu? R/.

Jauna, nire deiadar-hotsa entzun ezazu,
erruki zakizkit eta adi nazazu.
Zuk esana bihotzean dut entzuten:
«Bila ezazue nire aurpegia.» R/.

Zure aurpegi bila nabilkizu, Jauna,
ez niri ezkuta aurpegi hori,
zure zerbitzari hau haserrez ez bazter utzi.
Laguntza zaitut, ez nazazula zapuztu,

Jainko, nire salbamen, eskutik utzi ez nazazu. R/.

Jaunaren ontasuna ikusi ustean
nago bizien lurrean.
Itxaron Jaunagan, eta kemen izan,
bizkor bekizu bihotza, eta itxaron Jaunagan. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 3, 17–4, 1

Kristok bere gorputz aintzatuaren antzeko egingo gaitu.

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: [Izan zaitezte guztiok nire antzeko, eta begira niregan duzuen eredura dabiltzanei. Asko baitira —askotan esan dizuet eta orain negarrez diotsuet— Kristoren gurutzearen etsai bezala dabiltzanak: haien azkena hondamendia da; haien Jainkoa, sabela; haien harrokeria, beren lotsarrietan dago; lurreko gauzetan, haien egarria.]

Guk zeruan dugu geure herri; eta itxaron, handik itxaroten dugu Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna. Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatuaren antzeko egingez, gauza guztiak menperatzeko duen indarrez.

Horrela, bada, ene senide maite eta bihotzestuok, nire poza eta nire koroa; iraun ezazue horrela Jaunari leial, ene maiteok.

EBANJELIOA: Lk 9, 28b-36

Ebanjelio aurreko txatala: lk. Lk 9, 35

V/. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa entzun zen:
«Hau da nire Semea, nire Aukeratua.
Entzuoizue».

*Otoitzean ari zela,
Haren aurpegia antzaldatu egin zen.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igo zen otoitz egitera. Otoitzean ari zela, Haren aurpegia antzaldatu, eta Haren jantzia zuri dizdizari egin zen. Honetan, bi gizon Harekin hizketan ari ziren: Moises eta Elias ziren, aintzatan agertuak; eta Hark Jerusalemenean jasan behar zuen heriotzaz mintzo ziren. Pedro eta lagunak logalez puskatzen zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta Harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten.

Hauek Harengandik aldegitakoan, Pedrok esaten dio Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasentzat». Ez zekien zer esaten zuen ere.

Hau esaten ari zela, hodei bat sortu zen eta estali egin zituen, eta hodeian sartzean beldurrak hartu zituen. Hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuoizue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik zegoen.

Ikasleak isilik egon ziren, eta egun haietan ez zioten inori esan ikusitakorik ezer. Sinesten dut esaten da.

Oparigaien gainekoa

Eskaintza honek, Jauna, gure bekatuetatik garbi gaitzala,
eta zure zerbitzarien gorputz-arimak santu egin,
Pazko jaiak ospatzeko gai izan gaitezen.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia honetan zure Semearen gorputza hartu dugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo.

GARIZUMAKO III. IGANDEA (C)

Otoitza

Errukiaren Aita eta on guztien iturria zaren Jauna,
baraua, otoitza eta limosna
ipintzen dizkiguzu geure bekatuen sendagarri;
begira bihotz onez
bere ahuleria aitortzen duen zeure herriari,
eta bizkor gaitzazu, zeure erruki haundiz,
bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ex 3, 1-8a. 13-15

«Ni-naiz»ek bidali nau zuengana.

Exodo liburutik

Egun haietan, Moises, bere aitagarreba Jetroren, Madiango apaizaren, ardiak zaintzen zebilen; basoaz beste aldera eramane zituen, eta Horeba, Jainkoaren mendira, iritsi zen. Han Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artetik ateratzen zen sugar batean. Moisesek begiratu zuen, eta sasia, sutan egonik ere, ez zen erretzen.

Orduan Moisesek esan zuen: «Banoa gauza harrigarri hau ikustera: nolaz ez den sasia erretzen». Ikusi zuen Jaunak, bazihoala begiratzera, eta dei egin zion sasi artetik, eta esan: «Moises, Moises!» Honek erantzun: «Hemen nauzu!» Eta Jaunak: «Ez hurbildu; ken oinetakoak, lur santua da eta zu zauden tokia».

Eta esan zion gainera: «Ni zure gurasoen Jainkoa naiz, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa». Orduan Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldurrez.

Jaunak esan zion: «Ikusi ditut Ejipton dagoen nire herriaren nekeak, entzun ditut haien marmarrak, beren langilezainen aurka; ezagutu ditut haien oinazeak. Beraz, jaitsi egin behar dut, ejiptoarren eskuetatik nire herria ateratzeko, eta lur hartatik lur on eta zabalera igo erazteko, esnea eta ezta darion lurraldera».

Moisesek esan zion Jainkoari: «Bai, Jauna, joango naiz israeldarengana, eta esango diet: "Zuen gurasoen Jaungoikoak bidali nau zuengana". Eta haiek galdetzen badidate: "Nola du izena?", nik zer erantzun behar diet?» Jaungoikoak Moisesi: «Naizena naiz Ni. Eta honela esango diezu israeldarrei: "Ni-naiz"ek bidali nau zuengana».

Jainkoak gainera esan zion Moisesi: «Honela hitzegin behar diezu israeldarrei: "Jaunak, zuen gurasoen Jainkoak, Isaaken Jainkoak, Jakoberen Jainkoak, bidali nau zuengana. Hau da nire izena behin betirako; honela deituko nauzue menderen mendeetan"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 102, 1-2. 3-4. 6-7. 8 eta 11

V/. Errukior da Jauna eta kupibera.

Ene arima, goretsazu Jauna,
neure barren osoak Haren izen deuna.
Ene arima, goretsazu Jauna,

eta ez ahaztu Hark zuri egina. R/.

Hark barkatzen baititu zure hobenak,
sendatzen zure gaitzak denak;
begiratzen du heriotzatik zure bizia,
ematen dizu buruntzat grazia eta errukia. R/.

Jaunak egintza zuzenak ditu egiten,
zapaldu guztiei berena die itzultzen.
Erakutsi zion bere bidea Moisesi,
Berak eginak Israelgo seme-alaba guztiei. R/.

Errukior da Jauna eta kupibera,
berant-haserre eta guztiz onbera.
Zerua lurretik goi dagoen adinean,
goi da Haren maitasuna beldur diotenen gainean. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 10, 1-6. 10-12

*Herriaren bizitza Moisesekin basanortuan,
gu zentzarazteko idatzi zen.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Ez zaituztet ezjakinean eduki nahi; gure arbasoak denak egon ziren hodeipean; denek igaro zuten itsasoa; eta hodeian eta itsasoan denek hartu zuten, Moisesi lotzen zituen bataio bat; denek jan zuten espirituzko janari berdina, eta denek edan, espirituzko edari bera; berekin batean zihoan espirituzko harkaitzetik edaten baitzuten; harkaitza, berriz, Kristo zen. Haietako asko eta asko, ordea, ez zitzaizkion atsegin izan Jaungoikoari; eta hilda gelditu ziren basamortuan.

Gauza hauek aurreirudi gertatu ziren guretzat, guk gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala. Ez zaitetzela marmarrean ari, haietako batzuk ari izan ziren bezala, eta heriotza emalearen esku hil ziren.

Guzti hau gure ikasbiderako gertatzen zitzairen; eta gu, azken aldi honetan bizi garenok, zentzarazteko idatzi zen. Beraz, zutik dagoela uste duenak, begira beza eror ez dadin.

EBANJELIOA: Lk 13, 1-9

Ebanjelio aurreko txatala: Mt 4, 17

V/. Bihotz-berri zaitetzte —dio Jaunak—,
hurbil da eta zeruetako erreinua.

*Bihotz-berritzen ez bazarete,
guztiok berdin galduko zarete.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, etorri zitzaizkion Jesusi batzuk, galilear batzuri gertatutakoaren berri ematera: Pilatok galilear haien odola beren opariekin nahastu omen zuela, alegia. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue, galilear haiek beste galilearrak baino bekatariago zirela, horrelako azkena izan zutelako?»

Ezetz diotsuet; eta bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok berdin galduko zarete.

Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek ere, uste al duzue, beste jerusalendarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet; eta bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok berdin galduko zarete».

Eta parabola hau esan zien: «Pikondo bat zeukan gizon batek, bere mahastian landatua. Eta piku bila etorri, eta ez zuen aurkitu. Orduan honela esan zion mahastilariari: "Bada hiru urte, pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut pikurik aurkitzen. Moztu ezazu. Zertarako eduki lurra alferrik?"

Mahastilariak, ordea, erantzun zion: "Jauna, utzazu aurtengoz; ingurua aitzurto eta ongarrituko dut; ea fruiturik ematen duen. Bestela, datorren urtean moztuko duzu"».

Oparigaien gainekoa

Opari honek, Jauna, irits diezagula
eskaten dizugun barkamena,
eta geure zordunei barkatzera eraman gaitzala.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Betiko salbamenaren agiria dugu, Jauna,
hartu dugun oparia;
egizu, orain sakramentuz ematen zaiguna
bere betean irits diezagula geroko bizitzan.
Jesu Kristo.

GARIZUMAKO IV. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko Jauna, zure Hitza gizon eginik,
miragarriri adiskidetu zenituen gizon-emakume guztiak Zeurekin;
egizu, kristau herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai,
presta dadila Pazko jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jos 5, 9a. 10-12

*Jainkoaren herriak, agindutako lurraldera sartutakoan,
Pazkoa ospatzen du.*

Josueren liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Josueri: «Gaur kendu dizuet Ejiptoko lotsaria». Israeldarrak Gilgalen etxolatu ziren, eta han ospatu zuten Pazkoa, hilaren hamalauko arratsaldean, Jerikoko zelaian. Pazko biharamunean, egun horretan bertan, lurraren emaitzetatik jan zuten; ogi hilak eta gari ale erreak. Lurreko emaitzetatik jaten hasi zirenean, atertu egin zen mana. Israeldarrek ez zuten gehiago manarik izan, eta urte hartan Kanaan lurreko emaitzez janaritu ziren.

ERANTZUN SALMOA: Sal 33, 2-3. 4-5. 6-7

R/. **Dasta ezazue eta ikus
zein samur den Jauna.**

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
nire ahoan beti Haren gorespena.
Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Haundietsi nirekin Jauna,
ospa dezagun batean Haren izena.
Jaunaren bila nenbilen eta entzun ninduen,
beldur guztietatik atera ninduen. R/.

Begira iezaiozue alai zaitezten,
zuen aurpegiak lotsa ez daitezen.
Dohakabe honek oihu egin zuen, eta Jaunak entzun,
estualdi denetatik atera du bere eskuz. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ko 5, 17-21

Jaungoikoak, Kristoren bitartez,

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Kristorena dena, sorkari berri da; zaharrarenak egin du; berria hasi da. Eta guzti hau, Jaungoikoarengandik dator, Kristoren bitartez bere adiskide egin baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri ezarri digu. Izan ere, Jaungoikoa mundua Berekin adiskidetzen ari zen Kristorengan, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe; eta guri eman zigun adiskidetzearn hitza. Gu Kristoren ordezeko bezala ari gara, beraz; Jaungoikoak gure ahoz hotsegingo balizue bezala.

Kristoren izenean esaten dizuegu: adiskidetu zaitezte Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen Hura, Jaungoikoak gugatik bekatu bihurtu zuen, guk Harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamena irits dezagun.

EBANJELIOA: Lk 15, 1-3. 11-32

Ebanjelio aurreko txatala: Lk 15, 18

V/. Altxa eta banoa neure Aitarengana,
eta honela esango diot:
«Aita, bekatu egin dut
zeruaren aurka eta zure aurka».

*Zure anaia hau hila zegoen,
eta piztu egin da.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak pilaka hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta farisearrak eta idazlariak marmarrean hasi ziren elkarrekin esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan Jesusek parabola hau esan zien: «Gizon batek bi seme zituen: gazteenak honela esan zion Aitari: "Aita, emadazu dagokidan seniparte ondasunetatik". Eta aitak banatu egin zien ondarea. Egun gutxi barru, seme gazteena, bere gauza guztiak bilduta, urrutira joan zen; eta, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Zituen guztiak eralki ondoren, gosete handi bat sortu zen lurralde hartan, eta beharra sentitzen hasi zen mutila. Orduan herri hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen; eta hark bere larreetara txerrizain bidali zuen. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela bete nahi izaten zuen, baina inork ez zion ematen.

Orduan bere baitara itzuli, eta esan zuen: "Hamaika morroi bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Altxa eta banoa neure aitarengana, eta esango diot: Aita, bekatu egin dut zeruaren aurka eta zure aurka; ez dut gehiago zure seme izenik merezi; har nazazu zeure morroietako bat bezala". Eta altxa eta bere aitarengana abiatu zen.

Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak, eta erruki izan zuen; joan zen lasterka harengana, besarkatu zuen eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut zeruaren aurka eta zure aurka; ez dut gehiago zure seme izenik merezi".

Aitak, ordea, esan zien bere morroiei: "Ekarri berehala soinekorik ederrena, eta jantz iezaiozue; ipin iezaiozue eraztuna eskuan, eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizona, eta hil; jan dezagun eta jai egin: nire seme hau hila baitzegoen, eta piztu egin da; galdua zegoen, eta aurkitu digu". Eta hasi ziren jai egiten.

Seme zaharrena soroan zen eta handik etxera hurbiltzean, soinu eta dantzak entzun zituen; eta morroi bati deituta, hura zer zen galdetu zion. Morroiak erantzun: "Zure anaia etorri da, eta aitak zekor gizona hil du, semea onik aurkitu duelako". Hura haserretu egin z

eta aita, aterata, sartzeko otoika hasi zitzaion. Baina semeak erantzun zion aitari: "Horrenbeste urtetan zure zerbitzuan egon, zure esanik behinere egin gabe utzi ez, eta antxume bat bakarrik ere ez didazu sekulan eman lagun artean jateko; eta emagalduekin bere ondasunak janda, zure seme hori etorri denean, zekor gizona hil diozu".

Aitak orduan: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia, zeurea duzu; jai egin behar genuen eta poztu; zure anaia hau hila baitzegoen, eta piztu egin da; galdua zegoen, eta aurkitu dugu"».

Oparigaien gainekoa

Jauna, pozik egiten dizugu
betiko sendagarri dugun eskaintza,
eta apalik eskatzen:
opari hau begirunez ospa dezagula
eta munduaren salbamenerako eskaini.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, zuk argitzem dituzu
mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
argitu zeure graziaren distiraz gure gogo-bihotzak,
benetan ezagutu
eta maitasun haundienaz maita zaitzagun.
Jesu Kristo.

GARIZUMAKO V. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko gure Jauna,
zure Semeak, mundua maite zuelako
eta mundua salbatzeagatik,
heriotzara eramane zuen bere burua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 43, 16-21

*Gauza berriak egiten ari naiz,
eta aseko dut nire herri aukeratuaren egarria.*

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna,
itsasoan bide bat zabaldu zuena,
ur haundietan bideska bat egin zuena;
gurdi eta zaldi,
guda talde eta buruzagi eramane zituena;
erori baitira denak, ez jaikitzeke,
itzali dira, bukatu den metxa bezala:
«Ez oroitu lehengo gauzarik,
ez gogoan hartu aspaldikorik.
Begira, gauza berriak egiten ari naiz,
hasi dira; ez al duzue ikusten?
Bide bat irekiko dut basoan;
ibaiak basamortuan.
Basapiztiek, otsoek eta egalperrek
goretsiko naute;
errekak sortuko baititut basamortuan
eta ibaiak basoan,
ase dadin nire herri aukeratuaren egarria:
nire gorespenak kantatzeko
Nik eratu dudane herriaren egarria».

ERANTZUN SALMOA: Sal 125, 1-2ab. 2cd-3. 4-5. 6

**R/. Gurekin haundikiro jokatu da Jauna:
Hau da poza daukaguna!**

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,
bageunden amets antzean.
Orduan bete zitzaigun ahoa barrez,

gure mihia goratarrez. R/.

Atzerrietan, orduan, esan zuten:
«Jauna haundikiro jokatu dute.»
Gurekin haundikiro jokatu da Jauna:
Hau da poza daukaguna! R/.

Bihur ezazu, Jauna, gure zoria,
Negebeko erreka-urak bezala.
Malkoz erein bazuten,
pozez bilduko dute. R/.

Haruntzakoan han zihoazen negarrez,
ereiteko gari-zorroa eramanez.
Pozik etorriko dira honuntzakoan,
garibalak eskuan. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 3, 8-14

*Dena galeratzat daukat Kristoren aldean,
eta Beraren antzeko izan nahi dut heriotzan.*

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Dena galeratzat daukat, neurrigabeko ondasun honen aldean: Jesu Kristo nire Jaunaren ezaguera. Harengatik dena galdu nuen, eta dena simaurtzat daukat, Kristo irabaztekotan eta Harengan bizitzekotan; ez Legetik datorkidan neure zuzentasunez, Kristorengan sinestetik datorkidanez baizik. Jaungoikoarengandik baitator zuzentasuna hau, eta sinesmena du oinarri. Beraz, Kristo ezagutu nahi dut, eta Haren piztueraren indarra; Haren lagun izan nahi dut nekeetan, eta Beraren antzeko heriotzan, egunen batean hilen artetik piztuko naizen itxaropenez.

Ez dut esaten saria iritsi dudanik, edota lasterkaldia bukatu dudanik: nik neure lasterkaldian jarraitzen dut. Eta, Kristo Jesusek niretzat iritsi duelako, saria eskuetan baldin badut ere, ene senideok, oraindik saria iritsi ez banu bezala hartzen dut nik neure burua. Gauza baten atzetik bakarrik nabil: atzean gelditu dena ahazturik, eta aurrean dagoena bilatuz, lasterka noa helburura, saria iristeko; sari horretara deitzen baitu Jaungoikoak goitik, Kristo Jesusen bitartez.

EBANJELIOA: Jn 8, 1-11

Ebanjelio aurreko txatala: Jl 12, 12ab. 13c

V/. Begira zer dioen Jaun guztiz ahaltsuak:
Itzul zaitezte Niregana bihotz-bihotzez;
bihozbera eta errukitsua bainaiz.

*Zuen artean bekaturik ez duenak
bota diezaiola lehenengo harria.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Egunsentian jauretxera agertu zen herrira, eta herri guztia

etorri zitzaion; Jesus, eseri eta erakusten hasi zen.

Idazlari eta farisearrek ezkontz nahasten aurkitutako emakumea ekarri zioten eta, erdian ipinita, esan zioten: «Maisu, emakume hau ezkontz nahasten aurkitu dugu; eta Moisesek, horrelakoak harrika hiltzeko agindu zuen Legean. Zuk zer diozu?» Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko.

Jesus, ordea, makurtu eta lurtean idazten hasi zen behatzez. Baina galdezka ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zien: «Zuen artean bekaturik ez duenak bota diezaiola lehenego harria». Eta berriz ere makurtu, eta lurtean idazten jarraitu zuen. Hori entzun zutenean, zaharrenez aurrera, banaka-banaka joaten hasi ziren denak; eta Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek zutiturik esan zion: «Emakume, non dira zu salatzen zintuztenak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?» Eta emakumeak: «Inork ere ez, Jauna». Eta Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz, eta hemendik aurrera ez egin bekaturik».

Oparigaien gainekoa

Entzun iezaguzu, Jainko ahalguztiduna,
eta egizu, opari honek garbi gaitzala
kristau sinesmenaz argitu gaituzunok.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna, iguzu,
orain Kristoren gorputz-odolekin bat egin dugunez gero,
beti Haren gorputzeko atal izan gaitzela.
Errege bizi baita.

Martxoak 19
SAN JOSE,
ANDRE MARIA BIRJINAREN SENARRA

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
gizadi berriaren hasieran,
Kristo Salbatzailearen zaintzaile leial
egin zenuen Jose santua;
egizu, beronen otoitzez,
Elizak ere leial zaindu dezala
Jesu Kristoren salbamen misterioa,
eta bere betera eraman.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Sm 7, 4-5a. 12-14a. 16

Jainkoak Haren aita Dabiden errege aulkia emango dio.

Samuelen liburutik

Egun haietan, Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz, eta esaiozu nire morroi Dabidi: "Hau dio Jaunak: Zure egunak betetzen direnean eta zure gurasoekin atsedean hartzen duzunean, ondorengo bat emango dizut, zure erraietatik aterea, eta sendotu egingo dut Haren erreinua. Hark etxea eraikiko dio nire izenari, eta Nik sendotu egingo dut Haren errege aulkia betiko. Aita izango nau Hark Ni, eta Hura seme izango dut Nik. Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege aulkiak sendo iraungo du beti"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29

**R/. Jauna, zure maitasuna abestuko dut
betiren beti.**

Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti,
zure leialtasuna adieraziko gizaldiz gizaldi.
Esana baituzu: «Maitasuna betiko dut eraiki»,
zure leialtasuna zeruan duzu sendo erazi. R/.

«Egin dut nire hautatuarekin ituna,
Dabid nire morroiari zin egin niona:
Betiko sendotuko dut zure hazia,
menderen mende eraikiko zure aulkia». R/.

Berak deituko nau: «Zu zaitut Aita,
ene Jainko, nire salbamenaren Harkaitza».
Gordeko diot beti nire maitasuna,
zintzo edukiko, egin nion ituna. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 4, 13. 16-18. 22

*Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen
itxaropen guztien kontra.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Lurraren jabe izango zirelako agintzaria ez zitzaien egin Abrahami eta haren ondorengoei Legea betetzeagatik; sinesmenaren zuzentasunagatik baizik. Dena sinesmenetik dator, eta dena dohain hutsa da; horrela agintzariak ondorengo guztientzat irauten du; ez Legetik diren ondorengoentzat bakarrik, baita Abrahamen sinesmenetik direnentzat ere; hau guztien aita baita, idatzita dagoenez: «herri askoren aita egin zaitut». Abrahamek, hilak bizten dituen Jainkoa, eta ez direnak izatera deitzen dituen, aurkitu zuenean, sinetsi egin zion. Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela; esan zitzaion bezala: «hainbestekoa izango da zure ondorea». Hori zela eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

EBANJELIOA: Mt 1, 16. 18-21. 24a

Aleluia eta Ebanjelio aurreko txatala: Sal 83, 5

(R/. Aleluia).

V/. Bai dohatsu, zure etxean bizi direnak,
beti Zu goresten ari direnak! (R/.)

Josek Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariarengandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren jaiotza honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen.

Baina, asmo hori gogoan zerabilela, Jaungoikoaren aingerua ametsetan azaldu zitzaion, eta esan zion: «Dabiden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuarengandik baitator. Semea izango du, eta zuk «Jesus» ezarriko diozu izen, Horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Oparigaien gainekoa

Jauna, Jose santua

Maria Birjinagandik jaiotako zure Semearen

zerbitzari leial izan zen bezala,

egizu, guk ere bihotz garbiz zerbitza zaitzagula zure aldarean.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Aldareko janari santuaz ase duzu, Jauna, zeure familia hau
Jose dohatsuaren jaia pozik ospatzen duen egun honetan;
zaindu gaitzazu beti zeure babespean
eta gorde gudan Zuk maitasun haundiz emandako dohainak.
Jesu Kristo.